



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituena.

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

Norma Foral 4/2022, de 20 de diciembre, por la que se aprueban medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituen

Sarrera

Arau proiektu honen xedea zen aldaketak sartzea zenbait figura tributarioren erregulazioan, iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko jarduerak erraztera bideratutako aldaketak sartzeko, kontrola indartzeko eta zerga justiziaren parametroak finkatzeko.

Izaera teknikoko beste aldaketa batzuk, igorpenak eguneratzekoak eta kontzeptuak argitzekoak alde batera utzita, jarraian esanguratsuenak aipatzen dira.

Zergen foru arau orokorra

- Berandutze interesen erregulazioa

Informe de evaluación normativa

Norma Foral 4/2022, de 20 de diciembre, por la que se aprueban medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal

Introducción

El objetivo de este proyecto normativo era modificar diversas figuras tributarias con la finalidad de introducir cambios dirigidos a facilitar las actuaciones tendentes a prevenir y luchar contra el fraude reforzando el control, así como asentar unos parámetros de justicia tributaria.

Al margen de otras modificaciones de carácter técnico, de actualización de remisiones y otras de aclaración de conceptos, a continuación se señalan las más significativas.

Norma foral general tributaria

- Se adapta la regulación de los intereses



egokitzen da espresuki aitortzeko zerga bakoitzaren arauditik eta bidegabeko diru-sarreretatik eratorritako itzulketetan ez dela berandutze interesik sortuko epealdi jakin batzuetan.

- Ez-egoiliarren ordezkaritza araubidea egokitzen da, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat etor dadin.
- Beste berme batzuk aurkeztuta edo bermeak aurkeztetik salbuetsita abiatzen diren etete prozedurak iruzurrez erabil ez daitezzen, horiek tramitatu bitartean kautelazko neurriak hartzeko aukera gehitzen da.
- Zenbait aldaketa sartzen dira zerga zordunen zerrendaren araubidean. Hona hemen esanguratsuenak: 1) 1.000.000 eurotik 600.000 eurora murriztu da zerrenda horretan sartzea dakarren zenbatekoa; 2) berariaz sartu dira zerrenda horretan erantzule solidarioak; 3) zerrendatik kanpo geratzeko aukera ezarri da, baldin eta alegazioak aurkezteko epea amaitu baino lehen gutxienez zor den zenbatekoaren %25 ordaintzen bada, eta ordainketa horren ondoren ordaindu gabe geratzen den zenbatekoa ez bada 600.000

de demora para reconocer de forma expresa que no se devengarán en las devoluciones derivadas de la normativa de cada tributo y de ingresos indebidos durante determinados periodos.

- Se adapta el régimen de representación de los no residentes para adecuarlo al Derecho de la Unión Europea.
- Para evitar que los procedimientos de suspensión con otras garantías, o con dispensa de ellas, sean utilizados de forma fraudulenta, se incorpora la posibilidad de adoptar medidas cautelares durante la tramitación de los mismos.
- Se introducen diversas modificaciones en la regulación de la lista de deudores tributarios y deudoras tributarias. Entre las más significativas están: 1) se disminuye de 1.000.000 de euros a 600.000 euros el importe cuya superación conlleva la inclusión en dicha lista; 2) se incluye expresamente en la citada lista a los responsables solidarios; 3) se establece la posibilidad de ser excluido o excluida del listado, si antes de la finalización del plazo para formular alegaciones, se abona al menos el 25% de



eurotik gorakoa.

- Hainbat aldaketa egin dira zergapekoaren etxebizitzan sartzeko baimen judizialaren araubidea argitzeko, sarrera hori Zerga Administrazioak eskatzen duenean tributuak aplikatzeko jarduketa edo prozedura baten barruan.
- Zorrak geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko, eteteko edo gauzaz ordaintzeko eskaerak behin eta berriz aurkeztearen erabilera desagokia saiheste aldera -epe exekutiboaren hasiera atzeratzea izaten baitu helburu-, xedatzen da ezen eskaerak behin eta berriz aurkezteak, aurretik aurkeztutakoak ukatu direnean eta dagokion diru-sarrera egin ez denean, ez duela epe exekutiboa hastea galarazten.
- Tributuen araudi orokorrean aitortuta geratzen da Deggendorfen printzipioa, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-355/95 P gaiari buruzko epaian berretsi duena. Haren arabera, enpresa bati ezin zaio eman estatu laguntza indibidual berririk enpresa horrek Europako Batzordearen
- la cantidad adeudada, y la cantidad pendiente después de ese pago no supera los 600.000 euros.
- Se introducen diversas modificaciones para clarificar el régimen de autorización judicial de entrada en el domicilio de la persona obligada tributaria, solicitada por la Administración tributaria en el marco de una actuación o procedimiento de aplicación de los tributos.
- A efectos de evitar el uso inadecuado de la presentación de reiteradas solicitudes de aplazamiento, fraccionamiento, compensación, suspensión o pago en especie con el ánimo de retrasar el inicio del periodo ejecutivo, se dispone que la reiteración de solicitudes, cuando otras previas hayan sido denegadas y no se haya efectuado el ingreso correspondiente, no impide el inicio del periodo ejecutivo.
- Se reconoce en la normativa general tributaria el principio de Deggendorf, confirmado en la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea en el asunto C-355/95 P, según el cual no se pueden conceder nuevas ayudas estatales individuales a una empresa que



Erabaki batetik ondorioztatutako itzulketa betebeharra bete gabe duenean.

- Zerga errolden kudeaketa hobetze aldera, identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzeko araubidea aldatzen da, zenbakia errebokatua duten entitate inaktiboek ezin izan dezaten inskripziorik egin inongo erregistro publikotan, ezta eskriturarik formalizatu notariotzetan, orri bazterreko oharra ezerezteko ezinbestekoak diren izapideetan izan ezik.
- Hainbat aldaketa egin dira “paradisu fiskalen” eremuan; 1) "paradisu fiskala" kontzeptua "jurisdikzio ez-kooperatiboa" kontzeptuagatik ordezkatu da, eta horrek, azken batean, haren irismena zabaltzea dakar; 2) ikuspegi dinamikoa duen sistema bat ezarri da jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen diren herrialdeen zerrenda eguneratzeko; 3) kaltegarriak diren lehtasunezko araubide fiskalak identifikatzeko sistema bat ezarri da, zenbait herrialde edo lurraldetan iruzurra errazten dutenak.

tenga pendiente de cumplir una obligación de reintegro derivada de una Decisión de la Comisión Europea.

- Con el fin de mejorar la gestión de los censos tributarios, se modifica el régimen de revocación del número de identificación fiscal para que las entidades inactivas cuyo número haya sido revocado, no puedan realizar inscripciones en ningún registro público, ni otorgar escrituras ante notaria o notario, a excepción de los trámites imprescindibles para la cancelación de la correspondiente nota marginal.
- Se introducen diversas modificaciones en el ámbito de los “paraísos fiscales”: 1) se sustituye el concepto de “paraíso fiscal” por el de “jurisdicción no cooperativa”, lo cual supone, en definitiva, una ampliación de su alcance; 2) se establece un sistema con enfoque dinámico para la actualización del listado de países considerados jurisdicciones no cooperativas; 3) se establece un sistema para identificar regímenes fiscales preferenciales que resulten perjudiciales, establecidos en determinados países o territorios que facilitan el fraude fiscal.



- Atzerriko ondasunak eta eskubideak aitortzeko (720 eredu) betebeharrari buruzko zenbait alderdi aldatzen dira, Europako legeriara egokitzeko eta, horrela, Estatuko gainerako lurraldeekiko harmonizazioa errazteko. Horien artean, besteak beste: 1) aitortzeko obligazioa ez betetzea zergen foru arau orokorrean aurreikusitako arau orokorren arabera zigortuko da; 2) atzerrian dauden moneta birtualei buruz informatzeko betebeharraren eremu subjektiboa zabaldu egiten da.
- Se modifican diversos aspectos de la obligación de declaración de bienes y derechos en el extranjero (modelo 720) para adecuarlos a la legalidad europea, y facilitar así la armonización con el resto de territorios del Estado. Entre otros aspectos: 1) las repercusiones del incumplimiento de la obligación remiten a las reglas generales previstas en la norma foral general tributaria; 2) se amplía el ámbito subjetivo de la obligación de informar respecto a las monedas virtuales que se encuentran en el extranjero.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuetan (“inbertsio funts eta sozietate kotizatu” deritzenetan, edo ETF, ingelesezko sigletan) egiten diren inbertsioen tratamendua homogeneizatzen da, kontuan hartu gabe kotizatzen duten merkatua nazionala edo atzerrikoa den.
- Moneta birtualei buruzko zergapeko egitateen gaineko zerga kontrola indartu da, bi informazio betebeharrak berri ezarri baitira,

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Se procede a homogeneizar el tratamiento tributario de las inversiones en determinadas instituciones de inversión colectiva, conocidas como fondos y sociedades de inversión cotizadas (ETF, por sus siglas en inglés), con independencia del mercado, nacional o extranjero en el que coticen
- Se refuerza el control tributario sobre los hechos imposables relativos a monedas virtuales, al establecerse dos nuevas



moneta birtualak edukitzeari eta moneta birtualekin jarduteari buruzkoak.

obligaciones informativas referidas a la tenencia y operativa con monedas virtuales.

Ondarearen gaineko zerga

- Zehazten da nola baloratu behar diren bizi-aseguruak haien hartzaileak erreskate eskubidea baliatzeko ahalmenik ez duenean; horrela, saihesten da bizi-aseguruak zergapetu gabe geratzea, haien ondare balioa ukazina baita. Era berean, balorazio arau berri bat ezartzen da bizi-aseguru batetik aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen diren kasuetarako.

Impuesto sobre el patrimonio

- Se determina cómo deben valorarse los seguros de vida cuando el tomador o la tomadora del seguro no tenga la facultad de ejercer el derecho de rescate, evitando de esta forma que se pueda eludir la tributación por los seguros de vida-ahorro cuyo contenido patrimonial es indudable. Asimismo, se establece una nueva regla de valoración para aquellos supuestos en que se perciben rentas temporales o vitalicias procedentes de un seguro de vida.

Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Foru arauaren helburua zen iruzur fiskala prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko jarduerak erraztera bideratutako aldaketak sartzea.

Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

El objetivo de la norma foral era introducir cambios dirigidos a facilitar las actuaciones tendentes a prevenir y luchar contra el fraude fiscal.

Aldaketek itxiera-neurriak edo kontuz ibiltzeko neurriak sartu zituen, eta, beraz, horien bidez ez zen bilatzen zerga-bilketa nabarmen handitzea baizik eta zerga-bilketa murriztea

Las modificaciones introdujeron medidas de cierre o precautorias, de tal modo que con ellas no se perseguía un incremento sustancial de la recaudación, sino más bien,



ekar dezaketen jokabideak prebenitzea.

Beraz, esan daiteke hartutako neurrien helburua zerga sarrerak handitzea zela, epe ertain eta luzean, iruzur fiskala murriztuko litzatekeelako.

Arau hau indarrean sartu zenetik gaur egun arte denbora gutxi igaro denez, ezin da zehatz jakin zenbateraino bete diren helburu horiek. Horretarako, epe luzeagoa beharko da.

Zerga zordunen zerrendan sartzeak dakarren zenbatekoa 1.000.000 eurotik 600.000 eurora murrizteari dagokionez, adierazi behar da 2023ko ekainaren 30ean argitaratutako zerrendan 46 zordun daudela tarte horretan, eta ondorioz, lehen aldiz sartu direla zerrendan.

Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako araugintza garapenik egin behar izan.

prevenir conductas que pudieran dar lugar a una disminución de la misma.

Por tanto, se puede señalar que las medidas adoptadas pretendían generar un aumento de los ingresos tributarios a medio y largo, ya que se reduciría el fraude fiscal.

El poco tiempo transcurrido entre la entrada en vigor de esta norma y la actualidad impide conocer con detalle el cumplimiento de dichos objetivos. Para ello, será necesario contar un plazo de tiempo más amplio.

En relación a la disminución de 1.000.000 de euros a 600.000 euros del importe que conlleva la inclusión en la lista de deudores tributarios y deudoras tributarias, señalar que en la lista publicada a 30 de junio de 2023 un total de 46 deudores o deudoras se encuentran en ese tramo, y, en consecuencia, han accedido por primera vez a la lista.

Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de realizar ningún tipo de desarrollo normativo.



Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

Laburbilduz

Aztertutako foru araua eraginkortasunez bete da, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judizializaziorik egin haren aplikazioan.

Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

En resumen

La norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.